

Txirrindularitza afizionatua
Hegoaldean

Olarra-Ercorecaren iratzartzea


Joan den asteburuan korritutako karrera guztiak irabazi zituen Bizkaiko taldeak

Ez da makala izan Bizkaiko taldearen lana iragan asteburuan, korritutako hiru probetatik hirurak irabazi zituzten. Denboraldia dominatzen ari zen Banesto taldeari hezurra atera zaio, eta,aldi berean, aurkarietako itzala luzatu egin da. Jose Cuesta eta Haimar Zubeldia izan dira garaipenak eskuratu dituztenak, baina talde guztia kutsatu da haien sasoiak.

Xabier Usabiaga / Donostia

SOILIK Banesto taldeaz hitz egin eta idazten aspertzen hasiak ginenean, Olarra-Ercoreca taldea atera da tropelaren agintea hartu nahian. Nahia ahala bihurtu zen joan den asteburuan, eta Euskal Herrian korritu ziren hiru probetan (Iruñetik Baionarakoa, Marinkakoa eta Abadiñoakoa) mendean hartu zituzten aurkariak. Ordura arte lau garaipen zituen: Jose Cuestak Kantabria eta Extremadurako Itzulian (Espainia), Martinez Rodenasek Almansan (Espainia) eta Haimar Zubeldiak Lizarran. Hiru hilabeteko lana ia bi egunetan berdindu zuten.

Aldaketa bortitze horren arrazoia Julian Gorospe taldeko zuzendariak adierazi digu: «Txirrindulariak ezagutzen joan ahala, karrerak ematen joan naiz; edadea eta maila zainduta, gogorragoak batzuei, gozoagoak besteiei. Batzuek Extremadurako Itzulia korritu zuten eta beste batzuek Errioxakoa. Ondorioak orain hasi dira agertzen, beren maila bikaina erakusten hasi dira». Gakoa, bada, itzulietan egon



Mikel Pradera eta Txema del Olmo, Olarra-Ercoreca taldekoak, Abadiñon igandean korritutako lasterketan.
XABIER USABIAGA

da, mañariarraren ustetan, eta hori azpimarratu nahi du. «Nire ustetan egun bakarreko probetan sasoi hartzea ez da egokiena, itzulietan, erresistentziaren eraginez jakiten da noraino irits daitekeen txirrindulari bat».

Julian Gorospe berria da taldean. Denboraldi haiseran sartu zen Patxi Miner ordezkatzera, eta lehen zeregina lur jota zeuden batzuei burua tenetzea izan zen. Batez ere Jose Cuesta eta Txema del Olmori, taldeko zaharrenei, berreskuratu zituen eta zintzilik zuten bizikleta errepideratu. Gehienbat gazteei konfiantza ematea izan da profesional ohiaren lana, entrenamenduetan ez baita aldaketa handirik nabaritu; gazte bakoitzak bere entrenatzailea du. Dena den, aholkuak guztientzat ditu Gorospek. «Estreinoak

aholkua lasai entrenatzeko izan zen. Prestatzaile askok lan larregi bidaltzen diete txirrindulariei, eta entrenamenduetan nekaztea baino hobe da karrerak disputatzea, hobeak baitira sasoi hartzeko. Aintzat hartu ninduten, eta emaitzak karrerak korritu ostein hasi dira azaltzen».

Taldean giro aparta bizi dute, Gorospe bera taldeko bat gehiago sentitzen da, eta ez zuzendaria soilik. Masajea eman, bizikletak garbitu eta denetik egiten du mañariarrak, eta horrek talde bildua sortzen lagundu du. Zuzendariak ez du uste joan den asteburuko egun bakarreko zoriona izan zenik, eta jarraipena izango duela uste du, «garrantzitsuena, eta nik lortu nahi dudana, aurkarietako errespetua, beldurra, sartzea da, igandean Abadi-

ñon egin genuen moduan, eta hori lortuz gero garaipenak izango dute segida». Garaipenik lortu ezinik dabilen taldeen gain (ACR, Baque, Kaiku, Iberdrola, Caja Rural) itzala luzatu egin daiteke beraz.

Taldearen lan arrakastatsua, batez ere, Jose Cuestak eta Haimar Zubeldiak argitaratzen dute, baina taldeko 28 gazteen artean bada horren ondo ez dabilen mutirik Gorosperen ustetan. «Aurreko urteetan ondo ibiltzen ziren batzuek ez dute euren maila erakutsi. Beste batzuek ere, lana edo ikasketak tarteko, ez dute euren onena eman ahal izan, baina uda partean, nik uste, hobekuntza atzemango dela». Atzoz gero, Bidasoako Itzulian ari dira onena ematen Olarra-Ercorecako mutilak.

◆ Haimar Zubeldia ◆ Olarra-Ercorecako txirrindularia

«Munduko txapelketa korritu nahi dut»

BAKARRIK ibiltzea gustatzen ari zaio 20 urteko usurbildar honi. Denboraldiko lehen garaipena Lizarran lortu zuen, 14 segundoko abantailaz, eta joan den larunbatean hiru minutu pasatxo kendu zituzten gainerakoak. Erreleboa eskatzen ez dion laguna topatu du: indarra.

■ **Nondik nora 50 kilometro falta zirela bakarrik ihesi?**

Nire erasoak ez zen bakarrik ihes egiteko asmoarekin izan, taldetxo bat sortu nahi nuen. Erasoak jo nuenean taldetxo batean gindoazen jada, baina akordioa ez zen ona. Ondo konponduko ginen taldetxo bat sor zedin jo nuen erasoak.

■ **Baina ez zen taldetxorik sortu, eta hala ere...**

Lekoizko lehen igoeran jo nuen erasoak, eta inork jarraitu ez zida-

nez 35 bat segundoko abantailaz pasatu nuen gaina. Jaitsi eta gero zuzendaria etorri eta jarraitzeko animatu ninduen.

■ **Zer pentsatu zenuen diferentzia hiru minutura igo zenean?**

Animatu egin nintzen. Indartsu sentitzen nintzen, eta atzean ez zirela ondo konponduko pentsatu nuen. Normalean, bat bakarrik ihesi doanean berehala hasten da norbait lanean, baina diferentziari gorantz doazela ikustean garaipenaren ere gehiago sinesten duzu.

■ **Azken kilometroetan atzean lana gogor eginagatik ere, ez zuten alde murriztu. Zer esan nahi du horrek, oso indartsu amaitu zenuela?**

Indar faltarik ez nuen inoiz sentitu. Gorakoan, gehienbat, diferentziari eustera joan nintzen, eta

ordekan erraz nindoanez eta diferentziak aldeko nituen, buroak ere asko lagundu zidan.

■ **Bete-betean joan zinen ala indarrak neurtuz?**


Hasieran tartea egitera joan nintzen. Gero, diferentziari eutsi eta, badaezpada, indarrak neurtzea erabaki nuen.

■ **Zure zuzendariak dio Extremadurako Itzuliaren ondoren konfiantza hartu duzula.**

Nik ere horixe bera pentsatzen dut. Zalantza batzuk nituen hara joan edo ez, baina itzuli gogorragia ere ez zenez, beste gorputzaldi batekin etorri naiz. Han nahikoa ondo ibili nintzen, eta etorri gero irabazi dudana bigarren karrera dut.

■ **Zure asmoa sasoi orain harra-patzea al zen?**

Bueno, egia esan zerbait goi-



Haimar Zubeldia.

XABIER USABIAGA

zago etortzea espero nuen, baina betiere Bidasoako Itzulia begira.

■ **Bidasoa al da jomuga nagusia?**

Nagusienetakoa bai, baina Munduko Txapelketa ere hor da go eta gustatuko litzaidake korritzea.

Olarra-Ercoreca, Banestoren isplu

X.U. / Donostia

HASI badira hasi, ez dira asko gelditu Olarra-Ercorecako mutilak joan den asteburuan, eta korritu ziren karrera guztietan gailendu ziren. Banestok, bazen garaia, neurriko zapata aurkitu du. Hiru garaipenetatik bi esprintean izan ziren, Jose Cuestak lorturikoak biak, baina biak Haimar Zubeldiak lorturikoak atzetik etorri ziren. Haimarrek azken 50 kilometroak bakarrik egin zituen lasterketa buruan, batzuk harrituta utzi zituen, beste batzuk zur eta lur eta gainerakoak txundituta.

Arratsaldean, Iruñetik Baionarako Klasikoa korritu zen, eta goizekoaren jakitun, burua tente zuten Olarra-Ercorecako mutilek. Eguneko ihesaldian Mikel Artetxe larraletzuarra izan zuten helmuga, gainerakoak baino lehenago harrapatzeko xedez. Ez zuten lortu, 40 kilometroan, Auritzen, boskoteak hasi zuten ihesaldia helmugarako 17 kilometro falta zirela amaitu baitzen. Artetxeren zoritxarra Jose Cuestaren zorion bihurtu zen, esprinta irabazita.

Igandean, Abadiñon Julian Gorosperen mutilak Banestoren lekukoa hartu eta agintari ibili ziren. Jose Cuestak jarraipena eman zion bezperakoari. X

sailkapenak

Iruña-Baiona Klasikoa

1. Jose Cuesta (Olarra-Erc.) . 3:07:30
2. Alberto Benito (Banesto) d.b.
3. Iñaki Manterola (ACR) d.b.
4. Leandro Cruel (Coinpol) d.b.
5. G. Gerrikagoitia (Olarra-Erc.) . d.b.
6. Eric Frutoso (MBK) d.b.
7. Jon Azkuna (Banesto) d.b.
8. Roberto Ayllon (Caj) d.b.

Marinkako Sabin Foruria Saria

1. H. Zubeldia (Olarra-Erc.) . 2:39:33
2. Oscar Garcia (Banaka) 3:13ra
3. Iñaki Isasi (Banaka) d.b.
4. Koldo Gil (Caja Rural) 3:38ra
5. Aitor Silloniz (Iberdrola) d.b.
6. Endika Ibarrola (Olarra-Erc.) . d.b.

Abadiñoako San Trokas Saria

1. Jose Cuesta (Olarra-Erc.) . 3:06:49
2. Igor Miner (Baque) d.b.
3. Iker Zabaleta (Baque) d.b.
4. G. Gerrikagoitia (Olarra-Erc.) . d.b.
5. Rafael Gonzalez (T.G.) d.b.
6. Jon Azkora (ACR) d.b.

Euskaldun Saria

1. Igor Astarloa (Banesto) 91 p.
2. Txema del Olmo (Olarra-Erc.) . 56 p.
3. Iker Zabaleta (Baque) 44 p.
4. Igor Beristain (Kaiku) 38 p.
5. Roberto Merino (Banaka) 36 p.

Lehendakari Saria

1. H. Zubeldia (Olarra-Erc.) 51 p.
2. Jon Bru (Caja Rural) 38 p.
3. Xabier Zandio (Banesto) 37 p.
4. Aitor Perez (Olarra-Erc.) 36 p.
5. I. Intxaurrendieta (Caja Ru.) . 29 p.

Asteburuko Probak

- Maiatzak 17:**
Beasainen Loinaz sariaren 48. ekitaldia. Lehendakari Txapelketa. Ordua: 16:00. 120 kilometro.
- Maiatzak 17:** Atarrabiako Jeronimo Sariaren 10. ekitaldia. Euskaldun Saria. Ordua: 15:30. 142 kilometro.
- Maiatzak 18:** Bergarako Pentakontes Sariaren 42. ekitaldia. Euskaldun Saria. Ordua: 9:00. 157 kilometro.